



# TAO aparkaleku sistema, Berazubi eta San Estebanera zabaldu dute

**ALDAKETAK** ▶ Aste honetan jarri dute gune gorria Berazubín eta urdina eta gorria San Estebanen ▶ 2



San Esteban auzoak itxura hau zuen atzo arratsaldean, auto gutxi eta aparkalekuak ia hutsik. LEIRE MONTES



IMANOL GARCIA

## Uztartza aterpetxea lehiaketan atera dute

**ADUNA** ▶ Hamar urteko kontratua izango du esleipendunak, urtero gutxienez 7.200 euro ordainduta herriko Udalari ▶ 4

**UNAI OTAÑO** ▶ AIZKOLARIA

«Mailaz igotzea da nire helburua»

**JEXUX MARI MUJICA** ▶ AIZKOLARIA

«Gazteok laguntza gehiago behar dugu»

Inguruko txapelketetan aritzen dira bi gazte ibartarrak ▶ 6



IÑIGO TERRADILLOS

TRAFIKOA ▶

# Berazubi eta San Estebanera zabaldu dute TAO sistema

Berazubin gune gorria jarri dute zenbait kaletan; San Estebanen, urdina eta gorria



San Esteban auzoan, anbulategi aurreko aparkalekua ia hutsik ageri zen, atzo; TAO-ko gune urdina ezarri dute bertan. LEIRE MONTES

LEIRE MONTES

San Esteban auzoko txokoak eta Berazubiko kaleak itxuraldatuta agertu dira egunotan: aparkatzeko tokiak mugatzen dituzten koloretako marrak margotuta lurrean, aparkalekuak ohi baino hutsago... Izan ere, Tolosako TAO sisteman aldaketak jarri dituzte martxan aste honetan; eta, besteak beste, bi auzo horietara iritsi dira neurri berriak.

Urtarrilaren 26an jarri zen martxan TAO (Trafikoa Arautzeko Ordenantza), lau gunekin —gorria, marroia, urdina eta berdea—, eta indarrean jarraitzen du egun. Hilabete hauetan sistemak izan duen

eragina ikusteko eta herritarren iritzia jasotzeko azterketa bat egin zuen uda aurretik Leber enpresak. Azterketa horren arabera, zenbait auzotan bizilagunak kexu dira: izan ere, auzo horietako aparkalekuek ez zegoen ezarrita TAO sistematik; eta, ondorioz, auzotik kanpoko jendeak uzten zuen autoa gune horietan, auzotarrei lekua kenduz.

Hori guztia kontuan harturik, ondorioak aurkeztu zituen uztaila bukaeran Leber-ek. Bizilagunak kexu agertu ziren auzo horietan TAO sistema ezartzea proposatzen zuen enpresak: beharri egokitzu, gune bat edo beste jartzea jasotzen zuen txostenak; baita

bizilagunei txartela ateratzeko aukera ematea ere. San Esteban eta Berazubi auzoak ziren, besteak beste, jomuga.

Gobernu Batzordeak proposamena onartu eta aurrera eramateko erabakia hartu zuen, irailaren 20an egindako bileran. Gauzak horrela, astelehen honetan bertan ekin zioten TAO sistema zabaltzeari.

## Hiru aldaketa

Hiru dira, oro har, zabaltze horrek jasotzen dituen aldaketak. San Frantzisko ibiltokiaren eta Pedro de Tolosaren elkarguneetik Araba etorbidearen bukaraino, zeharkako kale guztiak gune gorrikoak izango dira he-

mendik aurrera; bizilagunentzat soilik, hain zuzen ere. Denalden, behin Araba Etorbideko lanak amaituta, atzealdeko aparkalekua TAO sistematik kanpo geratuko da; hau da, aparkatzea libre eta doakoa izango da.

San Esteban auzoan gune gorria eta urdina daude. Anbulatoriaren aurreko aparkalekua gune urdina izango da; gehienez bi orduz utz daiteke autoa bertan, eta bizilagunek txartela atera ahal izango dute. Gune gorria, berriz, Zuberoa izeneko kaletan jarri dute.

Berazubin, azkenik, gune gorria ezarri dute Berazubi kalean —plazatxoaren amaieratik Berazubi futbol zelaiaren aurrealdera arte—, Almirante Rekalden eta Elkanon, eta bi kale horietara iristeko sarbideetan. Martin Jose Iraola kalea eta futbol zelaiaren aurreko aparkalekua, berriz, ez dute TAOrik, eta edonork utz dezake autoa, doan.

Berazubi auzoan oraindik ez dira aldaketak gehiegi nabaritu; festak dira asteburuan, eta barrakek hartu dute egunotan autoen lekua. San Esteban auzoan, aldez, ohi baino hustuago daude aparkalekuak; esaterako, anbulategi aurrekoa ikusi besterik ez dago.

## GUNEAK ▶

Tolosako TAO sistema lau gunetan dago banaturik:

### GORRIA

▶ Guneko bizilagunentzat. **Kaleak.** Beotibar; Antonio Lekuona; Andia; Pablo Gorosabelen atzealdea —Andre Mariaren Bihotzaren plazaren aldamenean, trenbide ondoan—; Pedro de Tolosatik Araba etorbidearen bukarainoko zeharkako kaleak; San Esteban auzoan: Zuberoa izeneko gunea; eta Berazubi auzoan: Berazubi kalea —plazatxoaren bukaratik futbol zelaiaren aurrealdera arte—, Almirante Rekalde, Elkanon, eta bi bide horietara heltzeko sarbideak. **Norentzat.** Soilik gune horretako bizilagunentzat. Bizilagun txartela eduki behar dute.

### MARROIA

▶ Gehienez bi orduz.

**Kaleak.** Kale Barrena; Pablo Gorosabel; San Frantzisko ibiltokia —Gernikako Arbolako lorategietaraino—; Nafarroa etorbidea; eta Euskal Herria plaza.

**Norentzat.** Denentzat.

**Epea.** Gehienez bi orduz utz daiteke autoa marroi koloreko gunean.

### URDINA

▶ Gehienez lau orduz.

**Kaleak.** Alhondiga; Batxilerr Zaldibia; Gipuzkoa plaza; Gernikako arbolaren lorategiak; San Inazio; San Frantzisko ibiltokia; Pedro de Tolosa; Oria; Emeterio Arrese; Samaniego; Gudari; Foruen etorbidea; Laskorain; Paulo Rekondo; Zumalakarregi ibiltokia; Ibaiondoko biala; eta San Esteban auzoan: anbulategi aurreko aparkalekua.

**Norentzat.** Edonorentzat. Bertakoek bizilagun txartela atera dezakete.

**Epea.** Gehienez lau orduz utz daiteke autoa urdin koloreko gunean.

### BERDEA

▶ Egun erdiz.

**Kaleak.** Geltoki kalea; Geltoki aurreko aparkalekua; eta Zumardi Txikia.

**Norentzat.** Jende guztiak aparka dezake autoa berde koloreko gunean. Bertakoek bizilagun txartela egiteko aukera dute.

**Epea.** Egun erdiz —goizez edo arratsaldez— aparka daiteke.

## BERRIAk komertzialak behar ditu Tolosaldean (erref.: 0518)

### Eskaizten da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.
- Soldata finko interesgarria eta komisiokoak.

### Eskaizten da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoak izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

### Kontuan hartuko da:

- Eskarmentua izatea antzeko lanetan.
- Eskualdekoa izatea.
- Eskualdea ondo ezagutzea.

Interesa izanez gero, curriculum zehatza bidali urriaren 18rako [gb@berria.info](mailto:gb@berria.info) HELBIDE ELEKTRONIKORA edo beste helbide honetara: **BERRIA** Giza Baliabideak Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain. Ez ahaztu erreferentzia zehaztea.

## ARAMBURU

**Salgai (Tolosa).** Pisua Gorosabel 40ean, 50.000.000 pta  
**Salgai (Tolosa).** Pisua altua igogailuarekin Nafarroa Etorbidean, 49.000.000 pta.  
**Salgai (Tolosa).** Baju komertzialak Bafito eta Nagusia kalean.  
**Salgai (Tolosa).** Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m<sup>2</sup>.  
**Alokatzeko (Tolosa).** Lokal komertziala Errementari kalean. Pizzeria edo txokolategia jartzeko egokia.  
**Alokatzeko (Tolosa).** Bulegoa Korreo kalean 1.pisua igogailuarekin  
**Alokatzeko (Tolosa).** 145m<sup>2</sup>-ko bulegoa Laramendi kalean.  
**Alokatzeko (Tolosa).** Garaie irekia Laramendi kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

BERAZUBIKO JAIAK ▶



Gaztebo ugari ikus zitezkeen Berazubi auzoan jarritako barraken inguruan. IMANOL GARCIA

# Doctor Deseo talde bilbotarraren kontzertua, gauean

Atzo hasi ziren Berazubiko jaiak; txupinazoa, buruhandiak, antzerkia eta musika izan ziren atzoko jaiaren ardatzak

OLAIA ESKITXABEL

Txupinazoaren ondoren, maskuria astinduz irten ziren buruhandiak Berazubiko kaleetara, jaien hasiera iragartzera. Korrika, txistuka... zirikatzen gustura ibili ziren auzoko gaztetxoan.

Gauean, *Stand up comedy* antzeztanarekin barre egiteko eta Ezein taldearekin eta DJ-ekin gorputza mugitzeko aukera izan zuten helduagoek. Lau egun dituzte aurretik Berazubiko auzotarrek.

Musika eskaintza zabala antolatatu dute, bestalde. «gustu guztietarako musika eskaintzen saiatu gara», diote antolatzaileek. *Break dance* eta *rap* musika, Disko festa, euskal musika... dira horren lekuko. Horretaz gain, Doctor Deseo taldearen kontzertua izango da entzungai: «Mota horretako kontzertu bat antolatzen dugun lehenengo aldia da eta jendea gerturatzea espero dugu», azaldu dute antolatzaileek. Emanaldia, gaur izango da 23:00etan.

Lehiaketek toki berezia dute egitarauan. Sukaldean trebatzeko aukera ezin hobea izango

dute auzokoek; postreen lehiaketan, sagar tarta egin beharko dute parte-hartzaileek. Ondoren, plazara gerturatzen direnen artean banatuko dute.

Jaietako kutsua egokien islatzen duten balkoietara begira ere jarriko dira, balkoirik alaienaren lehiaketa ere antolatatu baitute, seigarren urtez.

Orain dela zortzi urte inguru estreinatu eta berriro errepikatatu ez duten lehiaketa antolatzen ere ausartu dira: Txapela jaurtiketa. «Txapela urrutien botatzen duenak buruan janzteko aukera izango du», azaldu dute jaietako antolatzaileek.

**Bazkaria eta afaria, plazan**

Kirola egiten hasiko dute eguna gaur Berazubiko auzotarrek; futbito txapelketa egingo dute. Ondoren, indar berritzeko, babarrun-jatea egingo dute plazan. Gauean berriro leku berean bilduko dira aflatzeko.

Arratsaldean, karta jokoan ariko dira batzuk eta abere artean beste batzuk. Eta gauean, aurretik aipaturiko pop rock taldea bilbotarraren ondoren, Akelarre musika taldeak hartuko du lekukoa.

**EGITARRAUA ▶**

**GAUR**

- 11:30.** Auzoko plazan 3x3 futbito txapelketa.
- 14:30.** Herri bazkaria.
- 16:00.** Mus azkarra txapelketa 66 eta Ordizia tabernetan.
- 17:00.** Behi kozkorrak eta poney-ak txikiak.
- 20:30.** Afaria auzoko plazan.
- 23:00** Doctor Deseo taldearen kontzertua. Ondoren, dantzaldia Akelarre taldearen eskutik.

**JULIAN AIZPURUA**  
Iturgintza, s.l.  
Iturgintza, sanemendua gasa eta berokuntza konponketa eta instalakuntza  
M.J. Iraola, 5 • Tolosa  
Tel/Faxa: 943 67 17 18

**66**  
Bokatak, Pintxoak eta Plater Konbinatuak, ugari.  
-- 7:00etan irekita --  
M.J. Iraola, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 19 37

LOTERIA ▶

**Gabonetako loteria txartelak salgai Harizpen**

Haritze jubilatuta eta pentsiodunen elkartean salgai jarri dituzte Gabonetako loteria txartelak. Nahi duten bazkideek eta herritarrek, orohar, elkartetik bertatik pasa daitezke gogoratu dute elkartekoei. Astelehenetan, asteazkenetan eta ostegunetan eros daitezke txartelak bulegoan, 10:30etik 12:30era. Era berean, Gabonetan zozketatuko duten saskirako txartelak ere salgai jarri dituzte Harizpen.

MUSIKA ▶

**Opera gaua eskainiko du gaur Tolosako Orfeoia**

Tolosako Orfeoia emanaldi berezia eskainiko du gaur, 21:00etan, Leidorren, Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean. Ramos Azkara poeta zenaren urteurrena ospatzeko, *Galtzaundi* estreinatuko dute, Juan Jose Ocon maisuak orkestrarako moldatutako bertasioan, Pedro Palacin zuzendariaren Iruñeko Concerto orkestrak lagunduta. Sabina Puertolas sopranoa eta Jon Plazaola tenorea ere ariko dira.

36. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

**Lehiaketarako abonuak salgai daude**

Hilaren 27an hasiko da 36. Abesbatza Lehiaketa; baina, urtero legez, abonuak eta sarrerak salgai jarri ditu aurretik Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE). Abonuak hilaren 14a arte egongo dira salgai, TEE-ren bulegoan (Emeterio Arrese, 2), egunero, 17:00etatik 20:00etara. 55 euro balio du helduen abonuak, eta 15 euro, berriz, haurrenak. Hilaren 19tik aurrera, bestalde, saioetarako sarrera solteak salgai jarriko dituzte Ekinbide Etxean.



Errusiako Siberiako Krasnoyarsk haur abesbatza, iaiz. JOXEMI SAIZAR

IKASTAROA ▶

**Yoga ikastaroa ostiraletan, HHI-k antolatuta**

Tolosako Helduen Hezkuntzako (HHI) Ikasleen Elkarteak yoga ikastaroa antolatuta du. Eskolak ostiraletan eskainiko dira, baina bi orduetegi daude aukeran: goizez, 10:30etik 12:30era izango dira saioak, eta arratsaldez, 17:30etik 19:30era. Izena eman edo informazio gehiago jaso nahi duenak HHI-ren egoitzara jo behar du (Igaralde, 23. 943 67 26 60).

AHT ▶

**Gaur, AHTri buruz batzarra eta elkarretaratzea**

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak deituta, Abiadura Handiko Trenari buruzko batzarra egingo dute gaur, 10:00etan, Kultur Etxean. AHT eraikitzeak eragingo dituen «kalte larriak» salatu eta azaldu eta azaroaren 6an Donostian egingo den nazio mailako manifestazioaren berri emango dute bileran. Ondoren, elkarretaratzea egingo dute Trianguloan.

**BAR ORDIZIA**  
Pintxo aukera handia, egitaratekoak eta plater konbinatuak. Bereizitasuna: olagarroa galiziar erara  
*Jalak goza itzazu!*  
M.J. Iraola eforb. 4 • TOLOSA  
Tel.: 943 01 67 97

**EXCAVACIONES**  
**C. ALVAREZ S.L.**  
Tel.: 943 11 77 48  
Tel/Faxa: 943 67 30 07  
e-mail: excav.cesar.alvarez@cuskalnet.net  
M.J. Iraola etrb. 8 - behea • TOLOSA

**66**  
Bokatak, Pintxoak eta Plater Konbinatuak, ugari.  
-- 7:00etan irekita --  
M.J. Iraola, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 19 37

**ARRINDEGIA**  
**"BELEN"**  
Ondo pasa jaietan!!  
Martin Joxe Iraola, 3 • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 67 58 09

ADUNA ▶ UDALA

# Uztartzaren ustiapen lehiaketa martxan jarri du Udalak

Aterpetxea ustiatzeko hamar urteko kontratua izango du esleipendunak, gutxienez urtero 7.200 euro ordainduta



Uztartza aterpetxea Herriko Plazan dago, elizararen ondoan. IMANOL GARCIA

IMANOL GARCIA

Aste honetan egindako ohiko bilkuran onartu zen puntuetako bat. Uztartza aterpetxea eta taberna-jatetxearen ustiapen eskubidea adjudikatzeko lehiaketaren deialdia egitea izan zen. Interesatuak hogeigun izango dituzte, Gipuzkoako Boletín Ofizialean deialdia publikatu eta gero, beren proposamena egiteko.

Ustiapen eskubidearen iraupena hamar urterako izango da baina bi aldeek, Adunako Udalarik eta esleipendunak, hala adostuz gero, luzatu ahal izango da, berrogeita hamar urteko muga gainditu gabe. Esleipendunak gutxienez 7.200 euroko (BEZ barne) kanona ordainduko dio urtean Adunako Udalarik. Zerbateko hori gorantz hobetu daitezke lizitazioan. Kanona hilero ordaindu ahal izango da dagokion proportzioan, hau da, gutxienez 600 euro. Nolanahi ere, ordainketa aurreratuan egingo da eta

dagokion KPI aplikatuz eguneratuko da urtero.

Adunako Udalarik deialdian zehaztuaren arabera, esleipen kontratua egiteko bi irizpide hartuko dira kontuan: alde bategatik, nortasuna, esperientzia profesionala eta eskarmentua tabernako zerbitzuak eta antzekoak ematean eta, oro har, kontzesioaren berezko zereginak betetzeko prestaketa berezia eskatzen duen beste edozein jardueratan, hamabost puntu arte. Beste irizpidea proposamen ekonomikoa izango da eta bost puntu arteko balio izango du.

Emakidadunaren betebeharrak, besteak beste, aterpetxea eta taberna-jatetxea ustiatzera behartuta dago; jendearentzako zabalik eta leku horrek berezkoak dituen zerbitzuak emateko moduan edudiko du, hau da, ostatua eskeintzeko eta otorrduak, edariak, otarrtekoak eta abar zerbitzatzeko moduan. Beste betebeharren artean, esleipendunari dagokio

udal pilotalekuko fitxak banartzeko eta aldagelen erabilpen-txandak ezartzeko ardura

Bestalde, ohiko bilkuran, besteak beste, HITZARI 933 euroko diru languntza ematea onartu zuen udalak.

## Haurrentzako ikastaroak

Eskolatik kanpo hainbat ikastaro antolatuta dira haurrei zuzenduta. Kirola ezagutzeko izeneko ikastaroa asteazkenetan izango da, 17:00etatik 18:00etara, eta urriaren 13an hasiko da.

Euskal dantza ikasi nahi dutenek, ostegunetan dute aukera, 17:00etatik 18:00etara, hilaren 14ean hasita. Antzerkia egiteko aukera er badago, astelehenetan, 17:00etatik 18:00etara, urriaren 18an hasiko delarik. Azkenik, pilota ikastaroa egiteko aukera ere izango da, ostegunetan, 16:30etik aurrera, eta urriaren 14ean hasita. Interesatuak 605 74 77 64 telefonora deitu behar dute.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ KIROLA



Jon Ander Iriartek errekorra lortu zuen bere mailan. HITZA

## Pultsularien lan bikaina Euskadiko Txapelketan

Danena-Olaederra taldekoen altxaldiek lagundu zuten Gipuzkoak irabazi zezan

I. GARCIA

Pasa den asteburuan halterofiliako Euskadiko Sub-15 Txapelketa jokatu zen Villabonan. Herrialdeka egin zen lehiaketa eta Gipuzkoa izan zen txapeladuna, bigarren Nafarroa, ondoren Bizkaia eta laugarren postuan Araba.

Gipuzkoako taldean Villabona eta Zizurkilgo Danena-Olaederrako pultsulari hauek parte hartu zuten: Jon Sasiain, Jon Ander Iriarte, Mikel Quintana, Igor Sasiain, Egoitz Simón, Jaime Izagirre, Iker Hernández. Lehenengo seiak A Coruña urriaren 30ean izan-

go den Espainako Sub-15 Txapelketarako plaza lortu zuten.

### Bi errekor berri

Txapelketaren zehar Euskadiko hiru errekor berri lortu ziren, horietatik bi Danena-Olaederrak: Jon Sasiainek —69 kiloko mailan— 107,5 kilo altxatu zituen bi denboratan eta Jon Ander Iriartek —77 kilo mailan— 75,5 kilo altxatu zituen arrankadan.

Bestalde, gaur Euskadi-Katalunia-Galizia triangeluarra egingo da Basaurin eta bertan Danena-Olaederrako Ekaitz Kortajarenak izango da.

VILLABONA ▶


### Aimar Aiertza aske utzi zuten atzo goizean

Jaiotzez billabonatarra den Aimar Aiertza aske utzi zuten atzo goizean, Guardia Zibilak Madrilen duen egoitzan bi egun atxilotuta egon ondoren. Asteazkenean eta ostegunetan atxilotu zituzten beste sei lagunetik bost aske utzi dituzte eta bati, Jose Luis Beotegiri inkomunikazioa luzatu diote.

ANOETA ▶

### Teknologia berriak ezagutzeko autobusa, plazan

Datorren asteazkenean, ostegunetan eta ostiralean, 10:00etatik 15:00etara, *Euskadi informazio gizartean* kanpainako autobusa izango da herriko plazan. Barruan hogeita zortzi ordenagailu ditu eta aurretik ezagutzarrik ez duten pertsona helduei teknologia berriak gerturatzeko du helburu.



HITZAK zozketatutako *leitor Zineman* astebukaera honetan izango diren filmetako bat ikusteko bi sarrerak irabazlea: **KONTXI GOIKOETXEANDIA KARRERA (Lizartza)**

ALEGIA ▶

**Cor Ciutat abesbatzaren emanaldia, gaur**

Tarragonako Cor Ciutat abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur San Juan Bataiatzailearen elizan; Josep Prats zuzendariaren gidaritzapean eskainiko duten emanaldia 19:45ean hasiko da. Guztira, hamazazpi abesti eskainiko dituzte; polifonia klasikoko lau abesti, errenazimenduko lau abesti profano eta Kataluniako abesti herrikoia izango dira entzun-gai. Azken horien artean, Baix Camp eta Montsant-eko abestiak aurkitzen dira, besteak beste.

IKAZTEGIETA ▶

**Ostatu taberna ustiatzeko deialdia zabalik**

Ikaztegieta Udalaren jabetzakoa den Ostatu tabernajetxearen ustiaketa eskubidea esleitzeko lehiaketa deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu denez, irekita aurkitzen dela jakinarazi du Udalak; eskararak aurkezteko epea zabalik dago, beraz. Baldintza pleguak udaltxean eskuratu ditzakete interesatuek. Eskararak udaltxean aurkeztu behar dira; eta horretarako azken eguna urriaren 18a izango da.

UGARTE ▶

**Poxpolo eta Mokolo pailazoak jaietan**

Atzo eman zieten hasiera Ugarteko Errosarioko amaren jaietara; gaur ere jai giroan murgilduta egongo dira, beraz, ugarteak. Haurrek, Poxpolo eta Mokolo pailazoaren emanaldiarekin gozatzeko aukera izango dute; pilotalekuan, 18:00etan izango da ekitaldi hori. Zahagi ardoa 21:00etan izango da eta bukatu ondoren, Epelde eta Larrañaga, trikitia eta panderoa astintzen hasiko dira. Atsedena dion. Traketsen apustuak egingo dituzte.

GIZARTEA ▶



2.000 metroara aurkitzen den Latchavana di Mechan nekazal etxea ezagutu zuten, besteak beste. HITZA

OLAIA ESKITXABEL

Europako mendi ingurueneko herrialdeetara bidaia egiten dute urtero Gipuzkoako Landa Garapen Elkartek, bertako lurraldeetako ekintzak, aurrera daramaten politika, etorkizunera begira hartzen dituzten neurriak... ezagutzeko helburuarekin.

Irailan egin dute aurtengo bidaia; Italiako Aosta eskualdea bisitatu dute. Aste bat igaro dute bertan Tolosaldea, Donostialdea, Deba Garaia eta Behoko ordezkariek.

Bidaiak eman duenaren berri luzatu digu bertan izan zen Tolomendiko ordezkariek, Iker Karrerak.

Aste bat igaro dute Aostako eskualdean; bitarte horretan, bertako produkzio guneak, gizarte zerbitzuak... bisitatu dituzte, «ikusiz ikasteko asmoarekin», azaldu du Karrerak.

Turismoak diru sarrera garrantzitsua suposatzen du Aostako eskualdearentzat. Batez ere, mendiko turismoa dago bertan. Bertako hainbat nekazal etxe bisitatu dituzte Gipuzkoako ordezkariek; Karrerak, landaturismoko legearen zorroztasuna azpimarratu du: «Ezin dute familiak kanpoko langilerik kontratatu, nekazal etxeetan ematen diren produktuen %51a ekoizpenean bertan sortu behar dituzte eta gainontzekoak eskualdeko produktuek behar dute izan, gutxienez hamasei gela izan behar dituzte eta jatetxe zerbitzua izatekotan hogeita hamar mahaikoa izan daiteke. Horren aurrean, nekazariak legearen aldatetak eskatzen dituzte».

**Aostara, ikusiz ikasteko asmoz**

Italiako Aosta eskualdea ezagutzen izan dira eskualdeko hainbat ordezkariek



Aosta bertako arrazako behiak beltzak eta pintoak dira. HITZA

**1. sektorea, indartsu**

Esne behietan oinarritzen den ganaderitza omen da, dioteenez, lehenengo sektoreko arlo garrantzitsuenetarikoa Aosta eskualdean: «Behi esnearekin eginiko jatorrizko deituraren duen gazta baten inguruan

(Fontina gazta) dago antolatuta arlo hori».

Fontina gaztak 800 urteko historia du eta, egun, gazta egiteko sistema berdina mantentzen dute: «Egunero bi aldiz jeitzen dituzte behiak eta ez dute gazta hozten uzten. Behiekin, Euskal Herrian ardiekin

ZENBAIT DATU ▶

AOSTA ESKUALDEA

**Kokapena.** Italiaren baitan kokatzen den eskualde autonomoa da Aosta; geografikoki 3.000 m<sup>2</sup> ditu eta 117.000 biztanle. Suitza Frantzia eta Italiaren arteko muga egiten du. Alpeak inguratzen dute eskualdea. **Ekonomia.** Nekazaritza, nekazaritzako elikagaien industria eta turismoa dira sektore garrantzitsuenak. Industria gutxi dago. Lurralde aberatsa da, bataz besteko errenta 20.000 eurokoa da. Aostan biltzen diren zerga guztien %90a bertan geratzen da.

egiten den antzeko maneja egiten dute. Esetako behiak mendian egoten dira udan eta bertan jeitzen dituzte; horretarako azpiegitura ona dute». Bertako arrazako behiak erabiltzen dituzte; bi motakoak daude: beltzak eta pintoak.

Hainbat ondorio

«Lehenengo sektoreak bere lekua aurkitu du gizartearen eta gizartearen hori errekonozitzen du. Ez daude sektorearen jarrapenaz ez daude bereziki kezkatuta», ondorioztatu du Karrerak, bidaia eta gero eginko hausmarketan.

Nekazaritza eta turismoa uzartuta daudela azaldu du Tolomendiko ordezkariek; bere ustez, ez dago bien arteko jarreraren kontrajarririk: «Mendiko turismoak nekazaritzaren beharra du, mendiak txukun mantentzeko, ingurunea zaintzeko... Eta turismoak, era berean, merkatu indartsu bat sortzen du nekazal produktuentzako».

Gizarte zerbitzuak, garraio-bideak, haur eskolak... ere bisitatu zituzten; zentzu horretan, eskualde guztia «landa eremua» dela azaldu du Iker Karrerak. «Ez dago herri txikien eta hirien arteko ezberdintasunik», zerbitzu berdina daude batean zein bestean».

Tolomendi elkarrekin txosten batetan jaso du Aosta eskualdearen egindako bisitaren laburpena; ikusitakoa eta ikasitakoa bertako sektoreari baliagarria izan dakioken aztertu behar-kota da.

 **www.tolosaldeko hitza.info**  
▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

## IBARRA ▶ KIROLAK

Euskal Herriko Txapelketan hirugarren mailan eta Gipuzkoakoan bigarrenean aritzen dira bi ibartar gazteak. Denbora gutxi izaten dute entrenamendurako, baina hala ere maila ona dutela frogatzen dute erakustaldietan

IÑIGO TERRADILLOS

## UNAI OTAÑO ▶ AIZKOLARIA

## «Datorren asteko finalean postu ona lortzea da da nire helburua»

Unai Otaño, 27 urteko ibartarra, 17 urte zituela hasi zen aizkorarekin. Aita eta osaba aritzen ziren eta hori ikusita berak ere aizkolaria izan nahi zuen. Azken lau bost urteak aizkora eskuan hartu gabe egon eta gero, aurtengoa hasi da berriro ere entrenatzen eta lan handia egin eta gero emaitza onak lortu ditu. Astigarragan izan zen Gipuzkoako Txapelketan bigarren hoberena izan zen. Euskal Herriko Txapelketarako kanporaketan bigarren amaitu zuen eta ondorioz datorren asteburuan Altsasun egingo den finalean izango da beste bost aizkolarirekin batera txapela lortzeko asmoz. Azken hilabeteen eskuan lesioa izan duela ere aipatu behar da, beraz egun hauetan gogor aritu beharko du entrenatzen datorren asteari begira.

**Nola ikusten duzu zure burua**

### datorren astean Altsasun izango den finalari begira?

Oso zaila da hemen irabaztea. Aurkari handiak izango ditut eta postu on bat lortu nahi badut guztia eman beharko dut. Garrantzitsua da lehenengo bi postuetan amaitzea, horrek mailaz igotzea baitakar berekin. Aste honetan gogor entrenatuko dut eta datorren astean gutxiago egingo dut lasaigo joateko Altsasura.

### Lana egin eta gero entrenatzeko denbora izaten al duzu?

Ez zait denbora gehiegi geratzen eta askotan lanetik etorri eta nekatuta zaudelako hurrengo egunerako uzten duzu. Hala ere, aizkorarekin ez bada, mendian korrika aritzen naiz gorputza prestatzeko eta asteburuetan ere entrenatzen dut. Aita izaten dut lagun nire entrenamenduetan, berak iraka-

tsi dit aizkora nola maneiatu behar den.

### Kirol honetan hasteko erraztasunak izaten al dituzue gazteok?

Gure kabuz aritu behar izaten dugu. Materiala erosi behar da, garestia da eta laguntzarik ez dugu jasotzen. Gainera ize-na dutenei hots egiten diete herri kirolearako eta ondorioz aizkora uztea pentsatzea normala izan daiteke.

### Urte batzutan kirol honetatik kanpo ibili zara, baina berriro bueltatu eta gogotsu ekin diozu.

Utzi egin nuen, baina berriro bueltatu naiz aurtengoa, aizkoran aritzeko gogoz nengoelako. Asko nabaritu nuen hasieran entrenamendu falta handia nuela, baina lan handia egin eta gero, uste baino lehenago eutsi diot utzitako mailari.

**Zein da zure helburua he-**



IÑIGO TERRADILLOS

### mendik aurrera aizkolaria bezala?

Lanean jarraituko dut. Gogor entrenatuko dut eta oso zaila badago ere, mailaz igo nahi nuke.

### Zein da gaur egungo aizkolarietan gustukoena duzuna?

Gaur jokatuko da lehen mailako Euskal Herriko Txapelketako finala eta bertan Nazabal ikusten dut irabazteko aukerakin Larretxearekin batera.

## IBARRA ▶ KIROLAK

## Aurkari gogorra izango du gaur Ibarrak etxean

Santanderreko Candedsa Camargo taldea izango dute Ibarrakoek arerio

## I. TERRADILLOS

Gaur 18:30ean du hurrengo hitzordua Ibarra areto futbol taldeak etxean Belabietako kiroldegian. Kasu honetan, Cantabriatik datozen Candedsa Camargo taldeko jokalariek izango dituzte aurretik Ibarra taldeak.

Santanderreko taldeak aurtengoa Zilarrezko Mailara igotzea du helburu, pasa den denboraldian jeitsi eta gero, eta horretarako ezaugarri guztiak dituen taldea da gainera. Beraz, ez da nolana hiko taldea gaur Ibarrara bisitan etorri dena.

Ez da, ordea, Lehen Maila A-ra jaisten den lehenengo aldia. Ohikoa da talde honengan urte batean goiko mailara igotzea eta datorrenean berriro maila galtzea. Tarte-ko maila duen taldea dela esan daiteke, Lehen A Mailarako indartsua da baina ez da oso ondo moldatzen zilarrezko Ligan.

Esan bezala, aurtengo denboraldian ere goragoko maila dutela helburu bezala dirudi; Madrildik ekarritako hainbat jokalariz osatu dute taldea eta oso ondo ari dira aurtengo Ligan. Partida gehienak irabazi dituzte, eta ondorioz, taulan bigarren lekua betetzen dute.

Zaila izango du, beraz Ibarrak, dena ematen ari den talde baten aurka jokatu beharko du eta. Hala ere, ez dute ahaztu behar etxean jokatuko dutela eta hau, beti ere onerako izaten dela.

Dena den, denboraldi berria oso berdindurik hasi da. Laugarren postuan dagoen taldeak, soilik hiru puntuko alde, ateratzen dio 15.ean dagoen taldeari lau partida pasa badira ere.

Ibarrak une honetan lau puntu batzen ditu eta 10.en da taulan.

Postuak igotzea ez dago oso zaila, baina puntuak lortu behar dira horretarako.

Gaur izango du aukera Ibarrak interesgarria izango den partidatan taulan gora egin eta gorako postuei begira jartzeko.

## JEXUX MARI MUJIKA ▶ AIZKOLARIA

## «Gazteentzako laguntza gehiago eman beharko lukete kirol honetan»

Jexux Mari Mujikak 27 urte ditu eta ibartarra da. Txikitatik, etxean ikusitakoarekin piztu zitzaion aizkorarekiko zaletasuna. Patxi Mujika, bere aita, aritzen zen aizkoran eta Jexux Mari bere pausoak jarraitu nahi izan zituen. Aita irakasle zuela, 17 urterekin hasi zen txapelketetan jokatzeko. Uneren batean amore ematekotan egon bada ere gogor ekiteko prest dago orain, datorren denboraldiari begira. Uztaila izan zen Gipuzkoako Txapelketan seigarren eta abuztuan jokatutako Euskal Herriko kanporaketan zortzigarren geratu zen.

### Kirol gogorra dela aizkolaria na die, egia al da?

Gogorra dela ez dago zalantzarik; gainera, gazteek lan asko egin beharra dugu mundu honetan izena lortu nahi badugu.

### Oso zaila da, orduan goreneko mailara heltzea?

Lehenengo mailan daudenak helduagoak izaten dira normalean. Teknikak oso garrantzitsua da kirol honetan eta urtetik urtera hobetuz joaten da. Bestalde, fisikoa ere ondo mantendu beharra dago.

### Herriko festetan izango dituzte erakustaldiak ezta?

Ez nahi adina. Herriko jaietarako lehen mailako aizkolaria nahi izaten dituzte eta bigarren eta hirugarren mailan gaitzatanok atzean uzten gaituzte. Aukera gehiago eman beharko ligukete, laguntza handiagoa. Kontuan hartu behar da, zure kabuz aurtengoa denbora gehiegi ez dela gertatzen. Honetaz gain, gastu guztiak norberak ordaindu behar izaten ditu eta hori ere aintzat hartu behar da.

### Gastu handia al du?

Bai. Egurra eta materiala erosi behar da eta oso garestia da. Egurren kasuan, erabili ondoren saldu dezakezu, baina beti galtzen da dirua. Aizkorak, berriz, Australiatik ekaritzen dira eta dezente ordaintzen da.

### Uztekalon egon zara aurtengoa.

Bai, baina hobeto pentsatu eta berriro gogor ekitea erabaki



IÑIGO TERRADILLOS

nuen eta berandu hasi nait, baina maila ona lortu dut.

### Aurrera begira, zein dira zure asmoak?

Jokoa hobetu dudala ikusi dut aurtengoa eta datorren urtean lehenengo hasiko naiz entrenatzen eta emaitza onak lortzen saiatuko naiz.

### Zein da egungo aizkolaria onena zure ustez?

Nazabal gustatzen zait asko eta urte batzuetarako txapela izango duela iruditzen zait.

**NATURAL - NATURALAK**

**Mahala**

BASERIKO PRODUKTUAK

- Era naturalean eginak
- Gaztak, yogurtak, txorizoak urdaiazpikoak, odolkiak eta beste hainbat produktu.

Mahala Caserria - 20491 LEABURU • Tel.-Faxa: 943 673 499 • Tel. Mug.: 689 805 633

## ▶ GIZARTEA

# Bi mediku berriak etorri dira zentrora

Oposaketan bidez, Leitzaldeko plazak eskuratu eta batek ez daki euskaraz



Leitza eta Aresoko biztanleak etortzen dira zentro honetara. J. A.

## JAIONE ASTIBIA

Aste honetan etorri dira Leitzaldeko osasun zentrorako bi mediku berriak, Aresoko eta Leitzaldeko biztanleentzat. Zentroan aritzen diren biak dira berriak, baina batek ez daki euskaraz hitz egiten. Eta hain zuzen berri horietatik, kezka eragin du herrietako biztanleengan.

Osasunari dagokionez eskualdea osatzen duten Leitzalde eta Goizuetaldeari, hiru mediku plaza dagozkie: Goizuetan aritzen dena bat eta Leitzaldean aritzen diren bi. Hirurak ere, orain artean ordezko modura, plaza finkorik gabe, aritu izan dira, urte dezentetan. Eta hirurak euskaldunak izatea suertatu zen, kasualitatez.

## Ez-euskalduna

Duela hilabete batzuk, ordea, Osasunbidean, plazak eskuratzeko oposaketak burutu zituzten, eskualdekoak barne. Eta orain, behin betiko, hiru sendagileek eskuratutako beren lanpostuak hartu eta lanean hasi direnean, kasualitatez, Goizuetara joan dena, bai euskalduna dela, baina Leitzalde-  
ra etorri direnetatik batek ez daki euskaraz.

Nafarroako Gobernuak berak lehiaketara ateratzen dituen plazetan, hau da publikoak diren lantokietan postua eskuratzeko ezartzen dituen baldintzetan edo egiten dituen eskakizunetan, hizkuntzari da-

gozkioenetan, kasu honetan euskara, eremu euskalduneko izan edo ez, tratamendu desbidea izaten du. Kasu honetan, eskualdeko hiruetatik, bi sendagile-plazetarako zegoen ezarrita (Hizkuntz Eskolako 4. maila edo pareko jakintza maila) eta gainera ez zen eskakizuna, meritua baizik, alegia puntuak igotzeko baliagarri, baina ez beharrezko. Dekretu horren arabera, Leitzaldera sendagile ez euskaldun bat etor zitekeen eta horixe da gertatu dena.

Euskalgintzatik hainbat alditan salatu izan da, eta behin eta berriz egiten da, dekretu hauek, eta hauen bidez Nafarroako Gobernuak, euskararikiko duten jarrera eta urte askotako eskakizuna izan da, Nafarroa osorako, baina batez ere eremu euskaldunerako, hizkuntz eskakizunen beharrezkotasuna, hain zuzen ere «gaur egun suertatu zaigun arazo hau gerta ez zedin. Iruñetik ez dute kasurik egin. Aspaldi samarrean, suertez, Leitzaldean sendagile euskaldunak izan ditugu. Baina orain, behin betikoa eralduna da», adierazi diote HIRZARI.

Euskararen Legea delakoak, eremu euskaldunerako «herri-tarrak administrazioarekin euskaraz egiteko eta euskaraz atenditua izateko eskubidea» airtzen du, bestalde. Kasu honetan, argi dago Leitzaldeko biztanleek eskubide hau ez dutela inolaz ere bermatuta.

## LEITZA ▶ GIZARTEA

### Ostegun eguerdian lapurreta saioa

Ostegun eguerdi-eguerdian, Leitzelarrea kaleko etxebizitza batean lapurreta egiten edo, saiatu ziren ezezagun batzuk. Badirudi, etxeko leiho bat indarrez ireki eta etxean sartzea lortu zutela, eta logelaraino iritsi ere egin zirela. Baina bertako jabea han lotan zegoela ohartzean, sartutako lekutik atera eta ihesi egin omen zuten. Gertakari hau eman zen garaian, han bertatik igarotzera suertatu ziren lagunak arabera, badirudi «bi gazte arrotz eta itxura onekoak» ikusi zituztela han inguruan eta geroxeago, nondik alde egin zuten ere bai. Edozein moduz, sartu ziren etxetik ez omen zuten deus eramaterik lortu.

## LEITZA ▶

### Aurrerak gaur jokatu du Iruñean

Aurrera KEko jokalariek Iruñeara joan beharko dute gaur, Nafarroako Unibertsitate Pribatuko futbol taldearen aurka jokatu behar baitute. Nor-gehiagoka, kanpaseko zelaian izanen da, arratsalde, 17:00etan. Salazarren mutilek liga honetako laugarren jardunaldia dute, asteburu honetan. Aurrekoa gogoan izatea komeni zaie, indarrei goian eusteko, 6-0 irabazi baitzuten.

## LEITZA ▶ FERIA



Goizean goiz saldu zituen piperrak erretzen aritu zen. JAIONE ASTIBIA

### Piperrak, erreak erosteko aukera atzo

Atzokoan, plazan piper usain gozua usaintzen zen eta danbolin soinuak, gaztainak erretzekoarena, entzun zitekeen. Hara non, ostiralero ferian, piper morro erreak saltzen ari ziren postu batean. Gares aldera, edozein errepede bazterretan horrelako irudiak ikustea ohiko den arren, herrian aurreneko aldian zen aukera hau eskaintzen zutena. Saltzaileak goiz guztia piper erretzen egin zuten, merkantzia guztia salduz. Motor tiki elektriko batek zerabilkien biraka danbolina, zituen zuloetatik sua —propanoarena— ateratzen zitzaion xafra baten gainean. Danbolina mutur batetik kargatu eta, biren poderioz eta barrenean espiralean zituen ildoeri esker, beste muturretik piperrak erreta ateratzen ziren jada. Asteburu honetan makina bat etxetan kontserbategietan haina lan izanen dute.

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIAK

#### ▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetaledea.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarralde.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**  
 ▶ Anbulatorioa, Iarriald: 461111  
 ▶ San Esteban: 00 68 00  
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
 ▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (Iarrialdiak)  
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
 ▶ DYA: 67 25 36  
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
 ▶ Ertzaingoa: 53 88 20  
**Villabona-Aiztondo.**  
 Anbulatorioa: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

### GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
 ▶ Taxia: 67 04 20  
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

### EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06  
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14  
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Bronte, Korreo kalea, 20, (Tolosa). 943 67 60 13.  
**Erbiti O.** Lizarraga 7 (Leitza). 112.

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
 tolosaldeko\_publi@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.  
 villabona\_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoetaledea.** 687 41 00 22  
 anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarralde.** 687 41 00 32.  
 ibarralde@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitza.** 687 41 01 18.  
 leitza@tolosaldeko-hitza.info

## iragarki laburrak ▶

### ESKAERA

#### Gasteizera joateko.

Astelehenetik ostiralera, eguerditan, Tolosatik Gasteizera autoz joateko norbait behar dut. Gastuak erdibana. Telefonoa: 600 05 42 27.

### SALGAI

**Mendiko botak salgai.** Sportiva 212 Glacier. Taila: 39 eta erdi zenbakia. Tfnoa.: 652 72 64 90.

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Leitza.** Maxurrenea herrintzat. Alde hemendik! lelopean, manifestazioa. 19:00etan, plazatik  
**Tolosa.** AHT Gelditu! Elkarlana-ren batzarra. 10:00etan, Kultur Etxean. Eguerdiari, elkarretaratzea, Trianguloan.

### GOIKO IRRATIA (FM 107)

**Tolosaldea.** Kornerra irratsaioan 13:00etan.

### MUSIKA

**Alegia.** Tarragonako Cor Ciutat abesbatzaren kontzertua. 19:45ean, elizan.

**Ibarra.** Hell Beer Boys, Afonia eta Ostiada Oi! taldeak. 22:30ean, Gaztebtxean.

**Tolosa.** Opera gaua. Orfeoia eta Concerto orkestra. 21:00etan, Leidorren.

# 'Rollito' ona Oria gainean

**TOLOSA ▶** ETB2ko 'Buen rollito' programako kamarak eta Iñaki Lopez aurkezlea atzo irudi batzuk grabatzen aritu ziren herriko kaleetan



Besteak beste, Nafarroako zubian aritu ziren grabaketan, Tolosako ohiko irudia erakutsiz. J. SAIZAR

### ERREDAKZIOA

**E**zagutzen al duzue *Buen rollito*. ETB2k igandeetan bazkalorduan ematen duen *zapping* eta erreportai saioa? Bada datorren igandean Tolosako irudiak ikus ahal izango dituzue bertan.

«Normalean sarrerako irudiak herri desberdinetan grabatzen ditugu eta oraingoan Tolosa tokatu da», adierazi zion HITZari Iñaki Lopez aurkezle egunak atzo Nafarroako zubian.

Ohiko irudi horrez gain, Zerkausian, Letxu kalean eta herriko beste hainbat txokotan izan ziren irudi horiek hartzen kamarak, aurkezlea eta beste-lako laguntzaileak.

## ZORION AGURRAK ▶



### ZORIONAK, LAZTANA

Zuk bezala nik ere topa egingo dut zure 25 urteak ospatzeko. Euskal presoak etxera.

Aldamenero lehiatilan dagoen Ibarroko neskarik....? Muxu bat.

# HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea  
ezkontzak, jaioberriak...  
zoriontzeko, etorri:

**HITZAren egoitzetara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

**Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!**



### ZORIONAK, BIKOTE

Jarraitu orain arte bezalako bikote eta lagun onak izaten. Zuen lagunnen partez.



### URTE ASKOAN

Ibarroko piper pikanteari 25 muxu. Zorionak. Ibarroko Herri Ekimenak.



### URTE ASKOAN

**Uxue Jauregi (Villabona).**  
Gaur 9 urte.

Zorionak familiaren partetik.



### URTE ASKOAN

**Mari Cabanillas (Amezketeta).**  
Zorionak eta muxu handi bat zure aitaren partez.